

WEB-AREN BIDEZ ABONU ETA SARRERA EROSKETARAKO BALDINTZA OROKORRAK

1. Erabiltzaileak www.gipuzkoabasket.com web-orriaren bidez egindako transakzioaren bitartez, denboraldiko abonua eta/edo sarrera/k lortzen du/ditu, erabiltzaileak egindako eserleku hautuaren arabera, aukeratutako eremu eta sail barruan.
2. Erabiltzaileak baldintza orokor hauen onarpen laukia transakzioa bukatu baino lehen markatu behar du. Hasitako transakzioa ezin izango da bukatu haiek onartu gabe.
3. www.gipuzkoabasket.com web-orrian adierazitako prezioek BEZ aplikagarria dute barne, espreski aurkakoa azaldu ezean.
4. Egindako transakzioaren ordainketa erabiltzaileak aukeratutako moduan egingo da.

Ordainketa kontuan zuzeneko zordunketaren bitartez egitekotan, harpidedunak Gipuzkoa Basket (Kluba) bere kontua zorduntzeko erabiltzailearen entitateari jarraibideak bidal diezazkion eta entitateari Klubaren instrukzioei jarraituz bere kontuan zordunketak egin ditzan baimentzen ditu. Beste eskubide batzuren artean, erabiltzailea legitimatuta dago bere entitateak berarekin izenpetutako kontratuaren termino eta baldintzetan dirua itzul diezaion. Diru-itzultzearen eskaera kontuan zordunketa-datari jarraitzen dioten zortzi asteren barruan egin behar izango da. Bere eskubideei buruzko informazio gehigarria bere finantza-erakundearen lor dezake.

Ordainketa atzeratzekotan, lehiaketa bakoitzerako honako epe kopuruan egingo da:

Endesa Liga Fase Erregularra: 3 EPE (abonua gauzatzearen hurrengo 3 hilabetetan. Kontuan lehen kargua aipaturiko formalizazioaren hurrengo hilabetearen 1tik-10era bitartean egingo da)

Endesa Liga play-offa: EPE 1 (Partida den unean)

Erabiltzaileak Klubaren alde SEPA zuzeneko zordunketako helbideratzearen agindua sinatzeko konpromisoa hartzen du.

Behin Klubak alta zuzen egin dela ikuskatuta harpidedunak klubaren bulegoetan zein pabiloiko leihatilan bere sarbide txartela jaso dezake formalizazio dataren hurrengo partidaren egunean.

5. Adinaren arabera edo beste edozein arrazoirengatik erositako abonua/ek eta/edo sarrerek deskonturen bat izatekotan, Klubak abonua edo sarrera daramanari deskontua gauzatzen duen baldintza betetzen dela akredita dezan eska diezaiolke, hala ez bada Jauregirako sarbidea eragotziz.

6. Honako baldintza orokorren onarpenaz, eskuratzailerak joka daitezkeen lehiaketako hurrengo faseak erosten ditu berariazko era ezeztazinean. Joko -instalazioko eremuetako bakoitzean aplikagarria den salneurria, www.gipuzkoabasket.com web-orriko "harpidedunak" atalean argitaratuta dagoena da.

7. Hurrengo denboraldietarako abonua berriztatzea automatikoa da, baldin eta harpideduna egunean aurkitzen den bere Klubarekiko beharren ordainketan. Denboraldi bakoitza amaitu ondoren, informazioa harpidedunaren eskura jarriko da hurrengorako prezio eta ordainketa baldintzekin.

8. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak dioen legez, Izaera Pertsonaleko Datu-Babesekoa, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Anoeta Ibilbidea 22-1. - 20.014 Donostia helbide soziala eta A-20960613 CIFa duen Gipuzkoa Basket arduraduna den informatizatutako fitxategiari gehitzen zaizkiola. Harpidedunak bere baimena ematen du Gipuzkoa Basket-ek bere datu pertsonalen tratamendua egin ahal izan dezan kontratupeko harremana burutu ahal izateko, hala nola merkatal, eraginkor eta estatistiko helburuekin, marketing-ikerketetarako bere datuen biltegitratzea eta erauzketa baimenduz. Harpidedunak sartzeko, zuzentzeko, indargabetzeko eta bere datuen oposiziorako eskubidea dauka. Datuetako titularrak merkatal helburuetarako baimena, erabat edo partzialki, edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Eskubide hauek eta baimenaren ezeztatzea hurrengo helbidera gutun bat: Anoeta- Ibilbidea, 22-1. - 20014 Donostia edo posta elektronikoa gipuzkoabasket@gipuzkoabasket.com helbidera bidaliz gauzatu ahal izango dira.